

Territorio librerik ez

2021-05-06



Kultura
TXABER ALTUBE

Sarrionandia itzuli da. Bideak mugaz inoiz baino josiago dauden honetan korritu du Habanatik lurretarako distantzia. Izango da horrek harritu duenik, baina ziur 1985ean Martuteneko espetxean funtzionario zebiltzanei huskeria iruditu zaiela balentria berri hori. Hortik abiatu nahi nuke artikulu hau, espetxeko funtzionarioetatik eta euskaratik, edo, zehatzago, 1992an argitaratu zen ***Kartzelako poemak*** lanean, Joseba Sarrionandiak espetxeko funtzionarioez eta euskaraz esan zituenetatik, intuizioa baitut, ***Territorio libre***a poema gogoangarri hartako errenkada biren interpretazio desitxuratu (edo, gutxienez, zaharkitu) bat euskararen inguruko ikuskera oker bat elikatzeko erabiltzen dela. Honela diote Sarrionandiaren errenkada haiek:

Euskara da gure territorio

libre bakarra.

(Sarrionandia, 1992)

Euskalgintzan eta euskararen aldeko ekinean dabilen zenbaitek eslogan bihurtu ditu hitzok. Izan ere, testuingurua alboratu eta bere hutsean hartuta, baieztapen hori ezin hobe da euskalgintzaren munduan horren hedatua den ondorengo ideia indartzeko: euskara hizkuntza bat baino gehiago da, mundua interpretatzeko eta bizitzeko era bereizi bat.

Bada, ezin problematikoagoa iruditzen zait ideia. Izan ere, euskara mundua interpretatzeko era bat dela esatea zera esatea da, badagoela hautematen ditugun fenomenoak ulertzeko marko bat euskaraz dakigun guztiok, edo euskara

lehen hizkuntza dugun guztiok -eta ez beste inork-konpartitzen duguna. Hau da, badagoela interpretazio-marko bat eta, oro har, kosmobisio bat, euskarari dagokiona. Eta euskara bizitzeko era bat dela esatean honelako zerbait esaten da: aurrez zehaztutako jende talde horrek berberak baduela berea baino ez den patroia multzo bat, zeinaren arabera bizi den. Funtsean, badagoela kultura bat, euskararekin erlazio jakin bat duen ororena dena, eta horiena bakarrik, eta kultura horren oinarria euskara bera dela. Egia esan, ez dakit esaten euskara mundua interpretatzeko eta bizitzeko modu bat dela defendatzen dutenek nori aitortzen dioten mundua interpretatzeko eta bizitzeko era hori. Nago beraiek ere ez daukatela argi euskarekiko zein erlazio den gizatalde bereizi horren oinarrian dagoena.

Hizkuntzaren eta mundu-ikuskeraren arteko erlazioa auzi eztabaidatua da, batez ere, XX. mende hasieratik aurrerako filosofian. Arlo horretako eztabaidetako bat determinismo linguistikoaren ingurukoa izan da. Ur handiegitan sartzeko intentziorik gabe, determinismo linguistikoaren edo Sapir-Whorf hipotesiaren bertsio gogorraren arabera, hizkuntzak pentsamendua determinatzen du. ***Ohiko pentsamenduak eta jarrerak hizkuntzarekin duten erlazioa*** lanean[i], Whorfek (1956) baieztatu zuen gizatalde baten mundu-ikuskerak determinatzen duena gizatalde horren hizkuntza dela. Sapir-Whorf hipotesiaren bertsio gogorrak defendatzen duena da kultura bakoitza bere hizkuntzan oinarritzen dela, bere hizkuntzak determinatzen duela, eta bi kultura ezberdinetako ulermen-markoek ahalbidetzen dituzten esperientzien eta jakintzen multzoak ez direla elkarrekin alderagarriak. Hizkuntza da kultura bereko norbanakoen mundu-ikuskerak determinatzen duena, eta posizio pribilegiatua du kultura osatzen duten gainerako elementuen aurrean (Wright Carr, 2011[ii]). Hipotesi horretatik seinالاتu nahi dudana ideia ondorengoa da: hizkuntza da kultura baten elementu determinatzailea.

Kulturaren analisi materialista batek hizkuntzari posizio

pribilegiatu hori kentzea eskatzen du. Izan ere, jendarte horren ekoizpen-ereduak erabat baldintzatzen ditu jendarte baten ohiturak, sozializazio-ereduak, kosmobisioa, arte-espresioak eta bizitzaren gainontzeko aspektu edo alor guztiak, baita hizkuntza ere. Egia da hizkuntzek badutela egitura sintaktiko eta gramatikal bat, finkoa ez baina egonkorragoa dena, gizarteko aldaketen eragina lausoago edo, behintzat mantsoago eta ez bat-batean, jasaten duena; eskeleto bat, hezurdura bat. Eta eskeleto horren gainean haragitzen da esanahi oro, semantika osoa. Hitzen esanahiak ez dira neutralak, ez dira hizkuntzaren eskeletoaren parte, gizarte-prozesuek erabat baldintzatuta daude. Hitzen esanahietan ere gorpuzten da klaseen arteko gatazka. Erreparatu besterik ez dago, **iraultza**, **demokrazia** edo **aberria** bezalako terminoak zeinen adiera ezberdinetan erabiltzen diren hautemateko. Ikus Paul Beitiak (2020) **Hitzak eta esanahiak** artikuluan^[iii], kazeta honetan bertan jasotako Bernie Sandersen eta **iraultza** terminoaren adibidea eta gaiari buruz esana.

Hizkuntzaren eta kulturaren arteko erlazioan, nik azpimarratu nahi dudana hau da: hizkuntza ez da kulturaren elementu determinantea. Gizatalde baten kosmobisio orokorraren elementu determinantea ekoizpen-eredua edo, nahi bada, horretatik eratortzen den gizarte-forma da. Gaur egunean eta gurean lurreratuta, jendarte kapitalistan, kosmobisio kapitalistaren kultur espresioak dira nagusi, baita euskaldunon artean ere, esan gabe doa. Produkzioa eta zirkulazioa maila globalean artikulatzen dituen gizarte-ereduak kultura globala bultzatu eta eskatzen du, gizarte-eredua betiketuko duen kultura bat, hain zuzen. Kapitalismoa aspaldi egonkortu zen herrialdeetan (zentro inperialistetan) jazo den homogeneizazio kulturalari erreparatu besterik ez dago herrialde horien gaur egungo kulturaren oinarrian gizarte-eredu kapitalista bera dagoela sumatzeko. Izan ere, kultura, mundua interpretatzeko eta bizitzeko modu gisa ulertuta, gero eta antzekoagoa da han eta hemen. Duela 200 urte bata Buenos Airesko periferian eta bestea Tolosan bizi ziren nekazari biren inguruan kultura ezberdina zutela esaten dugunean, eta gaur egun bata Buenos Airesko periferian eta

bestea Tolosan bizi diren proletario bik kultura ezberdina dutela esaten dugunean, ez dakit «kultura» terminoa esanahi berarekin erabiltzen ari garen ere. Noski ezberdintasunak egon badaudela, baina gero eta anekdotikoagoak dira. Finean, bizi-antolaketa berbera dute, soldatapeko lanean oinarritua. Egin dezake batuk tangoan eta besteak bertsotan, izan dezakete aktibitate aldetik ezberdina den aisialdia (hori ere gero eta gutxiago), baina beraien aisialdiaren funtsa bat eta bera izango da: hurrengo lan-txandarako erreprodukzioa.

Bestalde, badago lurraldez lurralde errepikatzen den beste patroia bat, klase-posizioaren arabera desberdintasun kulturalena, hain zuzen. Izan ere, norberak ekoizpen-sisteman duen postuak eragin nabarmena du norbanako bakoitzaren ulermen-markoan eta sozializazio-ereduetan. Klase-posizioaren arabera bloke kulturez hitz egin genezake. Dezakedana baino sakonago aztertzeke gaia da hau ere, eta lotura zuzena du euskararekin. Pintzelkada batzuk marrazten ahaleginduko naiz, homogeneizazio prozesuaren, klasearen arabera bloke kulturen eta euskararen arteko erlazioaren inguruan. Klase-posizioak kulturen duen eragina kultur homogeneizazioarekin lotuta ulertzeke nahikoa da erreparatzea nola nazioartean, hizkuntza bera hitz egiten ez duten herrialdeetan, arte-espresio espontaneo berberak isurtzen diren prozesu- edo egoera-sozial berberetatik. Proletariotzaren eta traparen arteko erlazioaz idatzi zuen Aitor Bizkarrak (2019) «Traparen euskal parodia» artikuluan^[iv]. Trapa zentro inperialista izandako herrialdeetako masa sozial proletarizatuenetan loratu den fenomeno da; AEBko auzo proletarioenetatik hasi eta gairitu ezin duen krisi ekonomikoan murgilduta dagoen Europa gero eta proletarizatuagora.

Euskararen aldeko borroka, ordea, euskaltzaletasunak, bere habia ez du sektore proletarizatuenetan; euskal hiztunen kopurua ere hutsaren hurrengoa da gizartearen estratu xumeenetan. Klase ertaina osatzen duten gizataldeetan ditu bere sustraiak nola euskarak, hala euskaltzaletasunak, gaur

egun. Eta euskara lehen hizkuntza duen komunitatearen mundu-ikuskera, euskaltzaletasunaren komunitatearen bizi-eredua, gainerako herrialdeetako klase ertainen bizi-eredua baldintzatzen duten patroik berberak baldintzatzen dute; ez euskarak berak. Horren adibide argia da, adibidez, euskararen «normalizazioan» lan egiten duten hainbat eragilek Netflix ikus-entzunezkoen kolosoari euskarazko eduki gehiago txerta dezan egindako eskariarekin bat egin izana. Eskaria, hain zuzen ere, honakoa da: Netflixerako sarbidea ordain dezakeen euskal hiztunak gainerako herrialdeetako homologoek duten eskubide berbera izan dezala eduki berbera bere hizkuntzan kontsumitzeko. Eduki berbera diot, izan ere horixe da euskalgintza aktiboaren adar honek Netflixi eskatzen diona, kapitalismoaren baitan, bloke-kultural global batentzat ekoiztako eduki homologatua tokian tokiko hizkuntzan kontsumitu ahal izatea. Hau da, ez da soilik euskara ez dela euskal hiztunen komunitatearen mundu-ikuskeraren eta bizi-ereduaren elementu determinantea, baizik eta guztiz kontrakoa dela aldarrikatzen dena: kapitalismoaren mundu-ikuskera eta bizi eredu homologatuak euskaraz erreproduzitzeko eskubidea, hain zuzen.

Natorren hasierako puntura. 1992an argitaratutako Sarrionandiaren poema hark honela zioen^[v]:

Funtzionarioak zelatan ditugu beti:
bazterretik jarraitzen digute patioan,
atzetik jarraitzen digute komunera,
aurretik jarraitzen digute bisitara,
ateko mirillatik zaintzen gaituzte zeldan
eta gure loa ere zelatatzen dute.
Ezin haiengandik alde egin ez patioan,
ez komunean, ez bisita
kabinan, ez zazpigarren loan.
Euskara da gure territorio
libre bakarra.

Euskaraz solasean hasiz gero

hara hor funtzionario bat berehala
ezkutuka gure ondora datorrela.
Ziur ez duela deus ulertzen,
baina bertan geratzen da zelatan,
espioi filmetako espioiaren moduan.
Dena dela, guk ez diogu euskarazko
lehen ikasgaia ere emanen.
Oharkabea bezala dio gutako batek:
'Emukatup tab kogaid erug naedlakezta
ae neztidnufnok nugud...'

Euskara zen Sarrionandia eta enparaudentzat espetxeko funtzionarioen zelatatik libre zen territorio bakarra, eta ez zieten, ez, territorio hori erraz entregatuko. Sarrionandiak espetxe aurretik bizi izan zuen euskara oposiziozko hizkuntza zen Hego Euskal Herrian. Hain zuzen, frankismoaren aurkako borrokarekin estu lotuta zegoen, baita frankismo osteko borroka-giroarekin ere. Polizia (nazionala zein Guardia Zibila) espainola zen; euskararen zein gizarte-forma berriaren alde egiten zutenak kriminalizatzen zituen telebista ere espainola zen eta euskal hiztun-komunitatean orokortuak edo behintzat hedatuak ziren erregimenarekiko aurkakotasunean oinarritutako kohesio-sentimendua eta iraultza-grina.

Sarrionandiaren espetxe-garaian, euskalgintzaren baitako eta ENAMen barruko zenbait sektoreren marko teoriko-politikoaren baitan, Sarrionandiak espetxeko funtzionarioen inguruan egindako erretratua euskararen lurralde osora estrapolagarria ere izan zitekeen. Bazen iraultza gosez zen Euskal Herri bat, politikoki, militarki eta mediatikoki jazarria zena, baina bazuen poliziarena, militarrena eta estatuairen telebista-katearena ez zen hizkuntza bat; konkistatu gabeko territorio baten sentsazio lasaigarria.

Sarrionandia itzuli da, eta ez du medioen espektakulua elikatu nahi izan, baina honako hitzok utzi ditu Durangaldeko hedabide lokal batekin izandako elkarrizketan: «lurreta

Durango zen sasoikoa naiz. Ez nuen Ertzaintza ezagutzen, ETB ere ez dut sekula zuzenean ikusi, harrituta nago hainbeste errotondagaz... Oso diferentea da dena». Ez dakit dena horren diferentea den, baina Espainiako polizia autonomikoak euskaraz daki, eta euskaltzaleek eskuak burura eramaten dituzte ETB1eko zaborrak audientzia-datu negargarriak dituelako, arazoa nazioarteko jendartearentzako ekoitzitako zabor homologatua inork euskaraz ikusten ez duela balitz bezala. Euskaltzaleen etatik Netflix euskaraz aldarrikatzea euskara kosmobisio kapitalistan guztiz txertaturik dagoelako sintoma argia da.

Ez dugu territorio librerik. Eta Durangaldea errotondaz josita dago.

[i] Whorf, B. L. (1956). *Language, thought, and reality; selected writings of Benjamin Lee Whorf*. Editorea: Carroll, J. B. Cambridge.

[ii] Wright Carr, D. C. (2011). "La hipótesis Sapir-Whorf: una evaluación crítica". Guanajuato: Universidad de Guanajuato.

[iii] Beitia, P. (2020). "Hitzak eta esanahiak". Gedar.

[iv] Bizkarra, A. (2019). "Traparen euskal parodia". Gedar.

[v] Sarrionandia, J. (1992). *Kartzelako poemak*. Zarautz: Susa